

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkartea argitaratu du
obra hau, elkartearren sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

EUTIFRON, EUTIDEMO
ETA GORGIAS

PLATON

Eutifron, Eutidemo
eta Gorgias

Jatorrizko izenburua:
EUQUFPWN, EUQIAHMOS, GORGIAS
Euskaratzailea: *Jesus Maria Arrojerria*
Berrikuslea: *Atziber Karrera Aranburu*
Hitzaurregilea: *José Ramón Arana*

Lehen argitalpena: 2005eko irailean

© Itzulpenarenaren: Jesus Maria Arrojeria
© Klasikoak, 2000
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatiak edo osorik obra hau birstotzea edozein bitarteko edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokaten edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2005-IX-28

ISBN: 84-96455-06-08
Lege gordailua: BI.-2024-05

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

Platon, beste ospe askoren artean, elkarrizketa-idazle gisa sartu da historian. Eta arrazoi osoz. Ez aurrena izan zelako –ez baita horrela, zenbaitzuk oraindik uste horretakoak badira ere–, ezta elkarrizketa zabaldu zuelako ere, baizik eta bera imitatzen saiatu diren guztiak, asko izanik ere, eskas gelditu direlako elkarrizketa platonikoen ondoan. Bi elkarrizketa idazle bikain gogoratuko ditut bakarrik. Bata, Juan Scoto Eriena. Haren Naturaren bereizketa lan handia, eragin handikoa bai erdiaroko filosofian bai modernoan Hegelen bidez, irakasle eta ikasle arteko elkarrizketa gisa aurkezten da. Baina horretara mugatzen da dena. Eta irakurleak aurretik daki zer itxaron dezakeen: bere irakaspenak ematen dituen irakasle bat eta, gehien jota, bizkor eta argia izango den ikasle bat, objekzioak jarriko dituena irakasleak bere ideiak zehaztu edo argudioak indartu ditzan. Anaia Luis Leongoak ere, Kristoren izenak lanean, lagunarteko elkarrizketa erabiltzen du ere Pseudo-Dioniso Areopagoarraz geroztik tradizio kristauan hain aztertua den gai honetaz hitz egiteko. Eta, hor hizketakideek izen berezia eduki arren, elkarrizketa ez da horregatik gutxiago bigarren mailako baliabide bat: gaia eta azalpenak dira garrantzitsuak. Bi idazleotan elkarrizketa alde batera utz zitekeela ondorioztatzen du irakurleak. Eta ez hori bakarrik, forma hori eztabaidatuarekiko horren arrotza izanik, ia haserrazten gaitu ere: artifiziosa da. Eta eztabaida intelektual batean gauza gutxi dira jasa-

nezinagoak artifizioak argudiaketaren zaitasunari gehitzen dizkionak baino.

Elkarritzeta platonikoa inoizko beste edozein forma literariotatik bereizten duena hizketakideek bertan beti zerbait jokoan dutela da: ez dira idazleak bere gogara darabiltzan pieza hutsak. Izan ere, Sokratesek bere heriotza ere du jokoan. Ezin da elkarritzeta bat bera ere irakurri testuinguru horretan ez bada: Sokrates mementu horretan egiten ari denagatik, eztabaidatzeagatik, epaitu, kondenatu eta hil zutela. Testu inguru horretan dena da goria, keinu txikiena ez da laguntza bat, bizi-tza baten zantzua baizik, eta elkarritzeta horietan eztabaidatzen direnak ideiak direnez, agerian jartzen da ideia horien lotura bizitzarekin, hobeto esanda, heriotzarekin. Platonen elkarritzetek pentsamenduarekiko lotura horregatik hartzen dute beren berezitasun eta bizitasuna, ez gaigatik.

Platonek (K. a. 427-347) elkarritzeta asko idatzi zituen eta gaur egun, XIX. eta XX. mendeetako lan historiografikoari esker, elkarritzeta horien kronologia erlatiboa ezagutzen dugu: hau da, ez dakigu zehatz bakoitza zein urtetan idatzi zen, baina bai beraien arteko hurrenkeria kronologikoa. Eta nahikoa adostasuna dago elkarritzetok hiru fase handitan banatzeko.

Gaztaroko fasea (399-388): Sokrates da protagonista, eta irakasle maite exekutatuaren metodologia eta pentsamendua oso ondo isolatzen dute. Garai horretakoak dira, besteak beste, epaiketari buruzko hiru lanak (Eutifron, Sokratesen defentsa, Kriton), Karmides eta sofistikoko errespetu eta kritikazko elkarritzeta handietako batzuk: Protagoras eta Gorgias, azken elkarritzeta honekin garai hori ixten delarik. Eutidemo agian garai horretakoa da.

Bigarren faseak (387-361) bai filosofiaren eta baita literatura-ren maisu honen zenbait maisu-lanak sortzen ditu: Fedon, Menon, Sínposioa, Pedro, Errepublika, Timeo, Sofista, Politikaria, Teeteto, Parmenides. Platon, horrezkero bere pentsamenduaren jabe, Sokrates protagonista gisa aurkezten jarraitzen du, baina Sokratesek adierazitako ideiak jada Platonenak izango lirateke.

Hirugarren fasean (360-347) Sokrates desagertu egiten da hizketakide gisa. Lan nagusia Legeak da, hirigintzari (antzinatek gorde den aurrena) eta politikari buruzko tratatu handia, Errepublikaren proposamen komunisten gogortasuna leuntzen duena¹.

Elkarritzeta, jakintza legitimatzailea.

Platonek bizi zuen hiri-grekoaren egoeran bi ezgaitasun daude: jakintzak ez du bere funtzioa betetzen, lana teknikoki eta sozialki zati-zea, politikaren helburua lortzeko, gizakiak hobeak bihurtzea alegia; ezta gizakiak jarduera politikoan zuzen parte hartzeko gaitzearen funtzioa ere, prozesu politikoen inguruko ezagupenaz erabakitzeko gai izan daitezen: norberak bere interesen arabera jarduten du, ez gizartearen interes kolektiboen arabera. Bi eskasia hauek hirugarren bat dakarte beraiekin: ez dago lidergorik jarduera eta indar desberdinak helburu komun batean koordinatzen dituenik. Platon bi eratara nahi du eskasia hirukoitz hori konpondu, biak jakintzaren kontzeptuan oinarri-tuak: bata lidero autoritario batean burutzen den jakintza ezarrria eta zuzendarria: Errepublikaren eredua da; bestea jakintza adostasuntzat joz, elkarritzetatzat alegia: honetaz arituko naiz hitzaurre honetan.

Elkarritzeta horretan gizakiek beren arteko desadostasunak kentzen dituzte eta eginkizun komun bat lortzearen elkarlanean aritzen dira; elkarritzetan gizartearen gatazken konponketari arrazionaltasun gehien dakarkion ideia nagusitzen da; eta konpoketa horretan ez dauka eraginik leinuaren ospeak edo indarraren inposaketak, hizketakideek erakusten duten jakintzak baizik. Elkarritzeta, beraz, alde teoriko –dialektiko– batez gain motibazio sozial huts bat dauka Platonengan: adostasun arrazionala elkarbizitzaren zentro gisa ezartzea. Eutifronen (7 b – 8 a), elkarritzetari izenburua ematen dion protagonistak bere aita hilketaz salatu baino lehentxeago, Sokratesekiko elkarritzeta motz batek agerian jartzen du hau: hirian gizakien arteko desadostasunak ez dira zenbaki edo irudien inguruan, berauek konpontzeko irizpide objektiboak baitaude, kalkulua eta geometria alegia; gizarte desadostasunak justizia, edertasuna eta ongiaren inguruko adostasun ezaren ondorio dira; eta auzi horietan ados egon arte, gatazkek jarraituko dute; eta Sokratesek gatazka horien hiru guneak aipatzen ditu: pertsonen artekoa, gizartearen barneko taldekoa, hirien artekoa (gerra). Adostasuna edo zatiketa dago. Eta politikak adostasuna hartu behar du xede. Eztabaida sokratikoak, hain zuzen ere, adostasun horrentzako oinarri sendoa aurkitzea du asmoa.

Bere legitimazio sozialaren modua elkarritzetaren bidez info-satzeko, Platonek aurrenik bere garaiko beste jakintza lehiakor eta alternatiboak kritikatu behar izan zituen.

Poesiak ez du ahalmen legitimatzailerik, ezin baitu bere burua esplikatu: «inspirazioaren» gaia poetak egiten duenaren arrazoiaik bere eskuetan ez dauzkala esateko beste modu bat besterik ez da. Gainera, lortzen duen adostasuna emozio hutsezkoa besterik ez da, kutsaduraz, ez arrazional eta argia: errexitatzaileak edo poetak negar egiten duenean, entzuleak ere negar egiten du, eta barre egiten duenean, barre egiten du; ez da, beraz, entzuleak bere burua meneratzeko duen ahalmelean oinarritzen. Poesia, gizarte jakintza gisa, iraganeko garai bati dagokio beraz, ez jakintzak baizik eta antzinako autoritateak joko soziala meneratzen zuen garai bati. Ionek gupidagabe aztertzen du jakintza mota hori legitimazio sozialaren iturri gisa².

Oratoria gaurkotuagoa zegoen. Sofistek ekarri zuten eta politikari eta hizlarien jakintza nagusia zen. Gorgias izan zen horien guztien maisua, oratoriaren oinarrizko printzipioak ezarri zituena. Oratoria entzulearen baiezkoa lortzen saiatzen da hiria eta gizakia hobetzeko hizlariaren proposamenentzat. Platonen kritika suntsigarria da: oratoriak ezin du bere xedea den justiziaren lorpena bermatu. Hizlaria ez delako bere hitzaren erabileraren ondorioz aldatzen: hizlaria bidezkoa ala bidegabeara den, beste hausnarketa mota baten esku utzi behar da; ez dago erretorika eta justiziaren arteko nahitaezko erlaziorik. Gainera, egia ordezkatzen du lekukoen pilaketaren bidez: baina, batzueta, lekuko bakar batek egia esan dezake beste guztien aurka, asko izanik ere. Eta erretorikak egiarekin loturak ez baldin badauka, hizlariaz gain entzulea ere ez da aldatzen. Dirkurtso mota horretan oinarritzen den adostasunak, justizia eta egiarik gabe, komenientzien adostasuna besterik ezin du izan; eta horretan beti indartsuena gailentzen da: Kaliklesek garbi ikusten du Sokratesengan: bizitza sozialean hizlari trebea gailentzen da, ez egiaren filosofoa. Baina, hori horrela baldin bada, erretorikaren gidatzeko ahalmenak lur jotzen du, agintariak ez duelako gobernatu behar gizakiak diren bezalakoak izaten jarraitzeko, izan behar duten bezalakoak izateko baizik: hobetu behar ditu. Diskurtso erretorikoan menperakuntza-indarkeria bat ezkutatzen da. Gorgiasen Platonek bere garaiko erretorikarekin kontuak kitatzen ditu behin betiko.

Sofistika legitimitate soziala lortu nahi duen beste jarduera bat da. Bere gaztaroen eta bere heldutasunean sofistikarekiko Plkatonen jarrera erabat aldatzen da, urrutiko errespetu batetik ezertan amore eman gabeko kritika batera. Aldaketa hori diskurtso legitimizailearen

inguruko borrokaren gogortzearen ondorioa da. Platonek sofistek beren burua publikoki jakintsutzat aurkeztea goresten du, horrela jakintzari toki bat ematen baitiote esparru sozialean. Eta Protagorasen jarrera onartzen du, jakintza giza bizitzaren ezaugarri gorentzat jotzen duena (Protagoras, 316 c – 317 c).

Baina badira zenbait kritika Platon sofistengandik garbi bereizten dutenak. Balio bat indarrean egotea eta beronen egiatasuna nahasten dituzte: nahikoa da gizarte batek ausardia edo aberastasuna balioesta, sofistek ere aberastasuna eta ausardia bertuteak direla uste izateko. Bainan Platonek bi maila horiek bereiztea eskatuko du: balio baten baliotasuna ez da gizartean duen hedaduran neurten, argudiaketa teorikoaren eskaizun argitzaleei men egiteko duen ahalmenean baizik. Platonek dirkurto sofiestoaren oinarrizte eza ere kritikatzen du: metodo besberdinetara eta ezagupen-entziklopedia batera (Hipiasek bereziki) jotzen du, baina eklektizismo horrek ez du jakintza-aberastasuna adierazten, oinarrizte eza baizik.

Eskasia teoriko horiez gain, Platonek beren jarduera ere kritikatzen die sofistei. Aurrenik, beren kokapen eza: sofistek irakaspen bera aldarrikatzen dute bai Korinton eta baita Atenasen ere, bai Megaran eta baita Irleton ere. Platonentzat horrek esan nahi du haien diskurtsoa zehaztugabea dela, ez-politikoa azken finean, ez baitu gizakia bere polisarekin lotzen, ezta gizakiak beren Jainkoekin ere: guztientzat balio duenak ez du inorentzat balio. Maiz aipatu den topiko bat dago: Platonek errefusatzen zuela sofistek beren irakaspenengatik dirua kobratzea (Sokratesen defentsa, 19 d–20 c; Sofista, 221 c–223 b)³. Hori Platonen elitismotzat jo izan da, lanik egiten ez zuen klasearen jarrera berezkotzat. Bainan legitimazioaren ikuspuntutik zentzu garbia du: sofistek onbideratze soziala –bakarrik jakintzaren bidez lortzen dena– onbideratze ekonomikoarekin nahasten dute; ezaguera monetarizatu egiten da eta horrekin batera edozein jakintza beste edozein jakintzaren berdina da; kritika teorikoaren oinarrizte ezaren korrelatua da. Gainera, ezaguera horrek pertsonen arteko harremanak faktore baten bidez kohesiōnatu nahi ditu: dirua, aldakorra den interesean oinarritzen dena, eta ez balio iraukorretan, arrazoienak bezalakoak: ordainketak irakas-kuntzan subjektuaren jakintzarekiko harremanak kontingente bihurtzen ditu, dirua alteritatearen zeinu soziala baita: eskuz esku dabil eta aldi oro ken diezaguketena da; jakintza, berriz, berez da gurea dena eta

inork lapurtu ezin diguna; nor bere buruarentzat aski ez izatea da. Azkenik, diruak eztabaidea arrazionalaren oinarrizko elementuetako bat eragozten du, hots, berdintasuna, eta, horrekin batera, hizketakide baliagarriak izan zitezkeen zenbait hiritar eztabaidatik kanpo uzten ditu: Sokratesek berak sofistekin eztabaidatzean bere lagunak fidatziale hartu behar ditu, berak ez daukalako nahikoa diru abalatua izateko.

Kritika teoriko eta praktiko horiek laburbilduz, esan dezakegu Platonen ustez sofistek imperialismo atenastarraren pentsamoldea ordezkatzen dutela: Protagoras hirira heldu dela jakin orduko goiztirian hura entzutera doazen gazteen berotasun handia (Protagoras, 310 a - ...), Hipiasen lañotasun gartsua, ez dira izaera ezaugarri bat, baizik eta K. a. V. mendeko 50eko hamarkadako hedapenak eskaintzen dion mundura liluraturik irekitzen den belaunaldiaren ezaugarri historikoa. Sofistika, bere protagonisten arabera, jakintzen eta tradizio greko osoaren gailurra litzateke: ez da harrigarria gertakari horren magoa, Perikles, inguratzten badute.

Azkenik, artisauak. Talde sozial bat baino zerbait gehiago ziren, eta Platonek Errepublikan ematen duen irudiak haien benetako garrantzia, ezinegona eta bere pentsamenduan bete zuten papera ezkutatzen ditu. Platonengan lehenagoko eta bere garaiko idazle guztietan baino bost aldiz gehiago agertzen dira artisautzaren aipuak⁴. Eta hori ez da kasualitate hutsa, atenastar demokraziaren oinarria izan baitziren. Eta Platonek beraingandik hartu zituen pentsamendu zorrotz batek eduki behar zituen zenbait ezaugarri: egiten duten jardueraren ezagutzaz zehatza. Giza jarduera –produktiboa bakarrik ez, baizik morala ere bai– helburu batek gidatua deneko kontzeptua hartzen du artisauengandik: ez dago kasualitatezko giza ekintzarik (Gorgias 503 d – 504 a). Teleologik helburu baterantz ezartzen ditu baliabideak, eta horrela ordena bat eta edertasun bat sortzen du: nozio horiek guztiak garrantzi transzentala daukate Platonen munduaren kontzeptuan –eta ez horretan bakarrik–. Artisautza gizarte atenastarraren talde sozialetako bat zen, merkatari eta lur-jabeen ondoan. Eta arraroa litzateke bere onurarako diskurtso sozial orohartzaileak ekoitziz bere posizioa legitimatzen saiatu ez balitz. Baino jakintza mota bat ere bada, aditu bat da. Eta Platonek gizon ona beti jakintsutzat joko du, bere ustetan moralean aditua esan nahi duena: gaiaz arituko den bakoitzean artisauen eredura joko du, sendagilea edo besteren bat.

Baina artisautzaren mugak mota desberdinakoak dira. Lehenik artisauen berezko espezializazioa: horrek lan egiten duen eremu estura mugatzen du artisaua eta beste artisautza batetaz ezin du ezer esan: arkitekto batek ez dauka irizpiderik ehule bat buruz. Horrek ondorio politiko zuzenak dakartza: artisauak ezin du bere posizioa gizartean hauteman eta, horren ondorioz, bere lidergo nahiak lur jotzen du. Gainera, artisauaren jarduerak eta jakintzak balioztatze mugak dauzka: larraua nola ontzen den azal dezake, baina inola ere ez larraua ontzea politikoki eta moralki ona ala txarra den, ez jasotzailearentzat ezta hiriarentzat ere. Artisauak, beraz, ezin du ezer esan giza harremanei buruz, helburu bat daukaten harremanan direnak (Sokratesen defentsa 22 c – e). Artisautzaren beste ahultasuna bere heteronomia da: artisauak besteentzat egiten du lan; gizaki ona, berriz, bere buruarentzat aski da beti: Karmidesen hausnarketa (164 d - ...) zuhurtziaren inguruan, arteen desberdina den norberaren hausnarketa bezala, «norberarena egitea» leloaren inguruan da.

Legitimazio sozialaren inguruko ustezko lehiakideak kenduta, beraz, Platonek bere eskaintza aurkezten du: gizarte berria bakarrik elkarritzetan ezar daiteke.

Elkarritzeta platoniko orok jokoan jartzen dituen dimentsioak aztertuz hurbilduko naiz liburuki honen elkarritzetara; ondoren horietako bakoitzaren inguruan iruzkin pare bat egingo ditut: gainera-koa irakurleak egin behar du.

I Elkarritzeta platonikoaren dimentsioak

Bere itxurazko lañotasun eta liluran, elkarritzeta platonikoak hiru dimentsio dauzka: bizimodu bat da, dirkurtso argudiatzaile bat da, lan literario mota bat da. Horietako bakoitzak legitimazioaren beharrei erantzuten die: bizimodu bezala, hiritarraren gaikuntza jasotzen du; dirkurtso argudiatzaile bezala, jakintza ordena sozialaren ardatza bihurtzeko eskaera platonikoa; eta idazkera mota bezala, literatura grekoari aukera platonikoa kontrajartzen dio hiriaren maisu gisa. Dimentsio horietako bakoitzari buruz pare bat esango ditugu.

Elkarritzeta, bizimodua

«Hau da gizakiaren ondasun handiena: balioari buruz eta niri hizketan entzun dizkidazuen beste gaiei buruz egunero eztabaidatzea,

eta neure burua eta besteak aztertu, azterketa gabeko bizitza ez baita biziitzeko duina gizaki batentzat» (Sokratesen defentsa 38 a).

Sokratesen hitz horiek, bere bizitza osoa jokoan dagoen epaike-taren une serioan esanak, bere jardueraren zentzua dira: elkarritzeta da hitz giltza. Eta elkarritzeta egunerokotasunetik sortzen da. Sokratesek ez du antzinako sekretuez hausnartzen, bertakoaz eta bertakotik baizik. Hau da, Platonen ustez, eguneroko bizimoduak nahiko elementu arra-zionalak dauzka bere existentzia justifikatzeko, eta ez bere arazoak konpontzeko bakarrik, baita berauei buruz hausnartzeko ere. Komunikazioan parte hartzeko beharrezko baldintzak eztabaidan parte hartze-ko beharrezkoak diren berberak dira. Horregatik dago eguneroko bizi-modua pil-pilean Platonengan, eta ez da dirkurtsoik bereizten, baizik eta bere barnean agertzen da eta irakurlea eguneroko bizimodu horre-tan dago murgilduta.

Egunerokotasun horretan erabakitzentzat gizakiarentzat garran-tzitsuena dena, bere zoriantasuna («bere ondasun handiena»). Baina Platonek egunerokotasun horretatik eztabaidatzen duelako, hain zuzen ere, dira bere lanak hain giza trinkotasun handikoak: Sokratesek gela batetik hausnartu izan balu, bere bizitzako zenbait alde agertuko lirate-ke bakarrik, baina egunerokotasunetik egingo, eguneko hogeita lau orduak eta egin eta nahi dugunaren dimentsio guztiak batera present daude elkarritzetan. Trinkotasuna ez da zaitasun teorikoko auzia, zirri-kiturik gabeko bizitasuneko baizik. Platonen ustez, filosofia ez da ari-keta intelektual bat, arnasteko modu bat baizik. Horregatik, intelektuali-ki metodo jasangarriago ala laxoagoa lirudikeen elkarritzeta erakarga-riago gertatzen da bizitzaren aldetik. Eta bere bizimodu ereduak horrenbeste exijitzen du.

Elkarritzeta, diskurtso argudiatzailea

Elkarritzketaren lotura eta errotze horrek eguneroko bizimoduan —merkatuan eta gimnasioetan hitzontzi handia den Sokrates— ez dio dis-kurtsoari zorroztasunik kentzen, guztiz kontrakoa baizik: are zorroztasun handiagoa eskatzen dio. Platonek atenastarrek beren elkarritzete-tan egiten dutena deskribatzearekin nahikoa izan balu, ez lizateke ohi-turen beste historiagile ala komediagile bat baino izango. Baino Platon zerbaite guztiz desberdina da: filosofoa da: eguneroko diskurtsoa dis-kurtsiboki arazten du. Platonek ikusten du gizakiak eguneroko elka-

rrizketetan interesek gidatuak daudela eta ez dutela zuen arrazoitzen. Bi eskasia horiei aurre egiteko, Platonek argudiaketa printzipoak eta arauak ezartzen ditu. Bakarrik bi mota horietako eskaerak betetzen direnean gaude elkarritzeta filosofiko baten barruan, hau da, mundu politikoa hobetu eta legitimatzeko gai den elkarritzeta baten barruan.

Elkarritzeta filosofikoaren eskaera funtsezkoena da hizketakideek ez bilatzea ospea, ez irabazia, ez beren ideien inposaketa, ez garaipena. Bakarrik eta esklusiboki egia bilatzen du (Gorgias, 457 c – e): jakiteko eztabaidatzen da eta jakitea gauzak (naturalarak zein politikoak) nolakoak diren aurkitzea da. Sokratesek eta Platonek, irakasle gisa, grina hori gizakiengan berez dagoela diote, eta grina hori elkarritzetan zehar dabil, beraz, eta beraiek berau burutzen laguntzeko prest daude. Platonikritikatzen zaio egiaren bilaketa ezinezkoa dela, eztabaida guztieta daudela interesak tartean, balditzapen enpirikoak (adinarenak, ezagupenenak, aberastasunarenak, osasunarenak...) ezin direla alde batera utzi. Baina hori ez da bakarrik platonismoaren esentzia bera ez ezagutzea, pentsamendu filosofiko bat denaren esentzia bera baizik: hori kritikatzen diotenek soziologo ala psikologo gisa jokatzen dute, gizakiek taldean ala banaka nola jokatzen duten esaten digutenek. Baina gizateriaren beste dimensio bat dago, bere arau ematea: nola jokatu beharko luketen, bai banaka eta baita taldean. Eta gizakia izaki arau-emailea dela jaten duela bezain gertaera errotiko eta funtsezkoa da: inork ez dio uzten daukana baino osasun hobea eduki nahi izateari, ezta maitatua izan eta maitatu nahi izateari, inork ez du bere bizi maila hobetzeko nahia alde batera uzten; hori giza bizitzaren alde arau-emailea da. Kontzeptu horri gizaki edo talde bakoitzak ematen dizkion edukiak desberdinak dira; baina ibiltzen garela bezain gertaera benetakoa da nahi eta desiratzen dugula.

Platon pentsalari arau-emailea da, eta ez digu gizakiak benetan nola jokatzen duen esan nahi, nola jokatu behar duen baizik. Politikan, moralean, eta, noski, diskurtsoan eta arrazoitzeko moduan. Egiaren bilaketa da eztabaida ororen eredu arau-emailea hori. Bi eratara: eredu erregulatzalea da, desbideratzeak orientatzen dituena; baina lortu beharrreko helmuga bezala ere: elkarritzeta ikasketa ere badelako eta, batez ere, ikasketa. Egiaren bilaketak gidatzen du elkarritzeta eta, gaitasun gehiagorekin eztabaidatzen den heinean, gehiago sartzen zara egian.

Egiaren bilaketak dimensio intelektual bat dauka, gero azalduko dudana eta beste ezer baino errazago onartzeko prest gaudena. Baina

baita dimentsio politiko bat ere. Egia bilatu nahian eztabaidatzen duena eztabaidaren gainerako kideen lankide bihurtzen baita: lehenago lehia-kideak izatetik lankideak izatera pasatzen dira. Elkarrizketa lankidetza sozialaren muina da, beraz. Elkarrizketa platonikoaren eta sofistikoaren arteko alde handia honetan datza: sofistek garaipena bilatzen zuten; Platonek lankidetza⁵.

Egiaren bilaketa hau elkarrizketa platonikoaren beste zenbait eskaerarekin dago lotuta. Horietako bat hizketakideak egiten dituen baieztapenak bereak bezala hartzea da: auzia ez da definizio edo erantzun gisa proposatzen dituen baieztapenak egiazkoak ala gezurrezkoak izatea –hori ikusteko dago, hori da zalantzan jartzen dena–, proposatzen dituenak beregandik etorriak bezala eta beren egian sinetsiz proposatzea baizik. Auzia ez da, halaber, proposamenak berriak edo originalak izatea: beste batzuenak izan daitezke, topiko sozialak ere izan daitezke. Sokratesek eskatzen duena zera da, proposamen horiek aurkezten dituen hizketakideak bereak bezala hartzea. Sokratesek bere ikasle izan nahi zuten asko errefusatzen ditu beren proposamenak balira bezala ez hartzeagatik: besteen iritziak diren heinean hitz egiten dute besteen iritziez (Teeteto, 150 b – 151 d). Ikasle horiek, hutsik, sofistengana bidalitzentzu ditu. Horregatik, Sokratesek ia ez ditu erabiltzen eztabaidan bertan ez dauden filosofo ospetsuen izenak.

Egiletasun honen arrazoia da norbera zalantzan jartzea: eztabaida tesi eta argudio baten balio eta egia aztertzea denez, argudio bat gezurtatzean, sostengatzen duena ere gezurtatzen da. Ez da gizaki edo hiritar gisa gezurtatzen, bere oker egotea da gezurtatzen dena. Horrela, elkarrizketak, egiten den logosaren berrazterketaren bidez, hizketakideak eraldatzen ditu (Lakes, 187 e – 188 c). Hizketakideak sostengatu dituen ideiak bereak bezala hartuko ez balitu, idea horien gezurapenak edo aldaketak lehengo egoera berberean utziko luke: ideiak eranskin bat lirateke, baina Platon ideien aldaketaren bidezko aldaketa politikoaren beharretik abiatu da; ideiak aldatzean, gizakia ere aldatzen da, eta horrekin batera sistema politikoa.

Eztabaidaren helburua egia erdiestea da. Egia erdietsi denean, hizketakideak oro daude egoera berri berean; bat-etortze egoera hori adostasuna da. Elkarrizketa, beraz, modu bikoitzean da kooperatzalea: bilaketa-prozedura bezala, eta lorpen bezala. Baina Platonengan agertzen diren bi adostasun mota bereizi behar dira: bata, besteari arrazoia

ematea aurka esateko ezer ez edukitzeagatik edo nekatuta egoteagatik edo kasualitateagatik (syndoiken, sygchôrein); hori adostasun txarra da interesetan oinarritzen delako, denboraldikoa da baldintzak aldatzen diren orduko hizketakideak banantzen direlako, ahula da izaeraren eta ordena sozialaren dimentsio oso azalekoei eragiten dielako (Karmides, 175 a – d). Baino beste mota bateko adostasuna dago, arrazoieta oinarritura, gezurtatze argudiatzailearen proba gainditu duena: adostasun arrazional (homologia) hori da elkarritzeta bilatzen duena, eta adostasun arrazional horretan bermatzen da polisa. Batzueta lortzen da, bestetan ez, baina hori da eztabaidea beti gidatu behar duena; egian oinarritutako adostasuna denez, iraunkorra da, egia ez delako aldatzen, trinkoa da egian gizakiaren esentzia lotzen delako (Gorgias, 518 a b).

Elkarritzetaren teoria horretan, interesetatik askatzen duena, Sokratesek eta Platonek egia objektiboa eta subjektiboa lotzen dituzte: objektiboa, argudioek eta beren zuzentasun formalak baieztapenek arrazoizko sostenguak dauzkatela bermatzen dutelako, ez dira iritziak bakanrik; subjektiboa, hizketakidearen izaera egia horren arabera aldatu eta transformatzen delako: subjektuak bere burua aurkitzen du eztabaidean.

Printzipio orokor horiek zenbait jarreratan eratzen dira, eztabaideatzeko orduan zenbait teknika daude. Gorgiasen (486 e – 487 e) argi eta garbi adierazten dira: hizketakideek «zientzia, onberatasuna eta zintzotasuna» eduki behar dute elkarrekiko. Zientziak esan nahi du ezin duela edozeinek eztabaidea batean parte hartu, beste hizketakidearen mailan egon behar baitu eta bere hitza kontuan hartzeko duina izateko adina hausnartu behar izan baitu gai horri buruz; horregatik bilatzen ditu Sokratesek garaiko jakintsuenak omen zirenak gai bakoitzean: politikariak oratoriaren inguruan, sofistak bertutearen inguruan, militarrak ausardiaren inguruan. Onberatasuna ez da bestearren okerrak onartu eta barkatzea, jarrera hori egiaren bilaketaren printzipioari huts egitea bailitzateke eta hizketakideetako bati (onberari) inork eman ez dion ustezko nagusitasun bat emango liokeelako: eztabaidea batean denak berdinak dira. Zintzotasuna, eztabaidearen protagonista bakarra benetan logosa izan dadin, hizketakideen artean tartekari dagoena: pentsatzen duguna esango ez bagenu, guk geuk ez genuke egiletasunaren irizpidea onartuko ezta lagunduko ere besteak onar dezan; horrela testuinguru bat eratuko litzateke, bertan logosaren ordez jada hizketakideen subjektibotasun enpirikoak jardungo lukeela bere kasa.

Printzio eta teknika horiekin guziekin, Platonek hizketakideak mugitzen diren kultura berrikusten du. Kulturak bi eratara eragiten du eztabaidan. Aurrena, hizketakideak haien barnean dauden ideia eta balioen testuinguru komun bat emanez: balio horietako batzuk partekatuko ez balitzutze, ezingo lukete elkarritzeta bat hasi ere. Baina, bigarrenik, eztabaidaren edukia. Platonengan bi osagaiak bat dira: ausardia, heziketa, justizia, neurritasuna, boterea. Horiek dira hizketakideek partekatzen dituzten balioak eta baita gizartearren balioak ere.

Kulturaren kritika balio horien kritikaren bidez eta hizketakideek balio horietaz dauzkaten kontzeptuen kritikaren bidez egiten da: horiek gizartearren kide gailenak direnez (politikaria, sofista, hizlaria, militarra, artisaua...) eta eztabaidatzen diren balioak ideia arrotzak ez direnez, egunerokotasunean indarrean daudenak baizik, ideia horien kritika, aldi berean, ordezkatzen duten gizartearren kulturaren kritika da.

Gizarte balio horiek ez baitira edozein, gizartearren gehiengo handiak partekatzen dituenak baizik, eta, ondorioz, bere kideak koordinatu eta elkartzen dituztenak. Baina ez modu estatiko batean, dinamikoan baizik, gizarte horren eta bere kideen jarduera orientatzen duten ideia-indarrak direlako. Balio eta ideia horiek dira eragiten dutenak hiritar batek onartzea gizarte orok dakarren sufrimendu kuota, eta, are gehiago, bere gizartea ahal den onentzat jo eta bizitza ahalbideratzen diotenak, hau da, funtzio legitimatzailea daukate. Balio horiek kritikatzenean, aldi berean funtzio horiek guztiak erasotzen dira.

Kritika horren beharra ez da apeta platoniko bat ezta filosofoaren funtasun bat ere. Atenasen historiatik bertatik sortzen da behar hori. Peloponesoko gerra galtzeak Atenasko gizartea talde eta mugimendu desberdin eta kontrajarriean zatitu zuen. Sokratesen hilketa legala prozesu horren burutzea izan zen, eta Platonentzat zerbait historikoki jasinezina. Gizarte atenastarrak ez dauzka balio partekatuak, bere bidez elkarturik jarraitu ahal izateko.

Baina badago beste arrazoi bat historiagileek kontuan hartu ez dutena, ezta Platonek ere, atzera begira eta gizarte atenastarra zetorren tokitik ikusten tematuta zegoenez: krisi suntsitzaietatzat jotzen du. Baina ikuspegi hori ez da erabat zuzena. Orduko gizarte grekoa ez delako nagusigo-borroken krisi bat pairatzen ari, konplexutasun krisi bat baizik: gizarte mota berri bat ari da sortzen, giza talde berriak (mertzenarioak), hirian errotu gabeak, aberastasun mota berriak, gizarte harre-

man mota berriak, unibertsalismo politiko berri bat. Hori guztia Alejandro Handiarengan burutuko da. Bestela ez luke zentzurik etengabe hiriaren krisiari buruz aritzeak, hiri-estatuak lur joko balu bezala eta, bat-batean, aldaketa guztiak sortuko balira bezala, hobeto esanda, Alejandroren iraultza, egun batetik bestera: historia ez doa horrela. Platonen kasuan, Jenofonte bezalako orduko beste historiagile batzuen kasuan bezala, garaiko krisia bakarrik hiriaren suntsipena bezala ikus-ten dute, prozesu hori historiaren prozesu zabalago baten barruan ikusi ordez, hots, mundu helenistikoaren mailakako eraketa bezala⁶.

Elkarrizketa platonikoan berezko metodo kritikoa galdera-erantzunekoa da, ironia sokratikoaren testuinguruan. Galdetzen duenak ez danielako galdetzen du, baina baita galdera posible den toki batean dagoelako ere: erabateko ezjakintasunetik ezinezkoa da galdera bat, bakarrik argilunetik galdetu daiteke⁷. Eta normala da partekatu gabeko eta zalantzazko balioetako gizarte batean bizi denak galdetu beharra izatea.

Baina galdera-erantzun hau ironia sokratikotik bereizi behar da: ironia hau «bakarrik dakit ez dakidala ezer» (Hipias txikia, 372 a – d; Sokratesen defentsa, 21 b – e) lelo ospetsuan agertzen da. Lehenengo mementoan, harritzen gaitu horrelako lelo eta jarrera batek heriotzara eramateko adinako sumindura eragin ahal izateak. Bainaz ez da leloa, Sokratesek lelo horretatik ateratzen dituen ondorioak, baizik, sumindura eragiten dutenak. Sokratesek galdetu egiten du. Eta, galdetzerakoan, bere hizketakideen jakinduriaz zalantza egiten du, ez bereaz: haien jakinduriaz konbentxituta balego, ez luke galdetuko, edo bere galderak ikaspen konkretuak ikastera egongo lirateke zuzenduak, militar baten ikaspena estrategiaren inguruan, sofista batena bertutearen inguruan, politikari batena gobernuaren inguruan. Bainaz Sokratesen galderak ez dira horretara zuzentzen: bere hizketakideek badakitela diotena benetan dakin ala ez jakitera zuzentzen dira. Eta hori haien prestigio usteen zalantzan jartze osoa da. «Bakarrik dakit ez dakidala ezer» horrek benetan esan nahi du «ez dut ezer onartzan»: eta hori da bere erradi-kaltasuna. Eta bere arriskugarritasuna. Ez pertsonarentzat bakarrik –aipatutako jakintsuak eta hizketakideak jakintsuak omen diren gai horrettantxe gertatzen baitira ezjakinak– baita ere, ezjakintasun hori dela medio, ustezko jakintsu horiek sostengatzen dituzten balioentzat, beren prestigioa eta jakintza haietan oinarritzen omen direlarik, hots,

balio kolektiboentzat. Ez da bakarrik pertsonalera iristen, kolektibora ere. Sokratesi hilgarria gertatu zitzaion bere ikerketa, hain zuen ere kultura atenastarrean printzipioz onarpen ez hori jasan zezakeen ezer ez zegoelako. Baino gizarte batek ezin du baliorik eta gidaririk gabe bizi, diren mendrenak izanda ere. Hala ere, Platoni ez zitzaion ezer gertatu, berrikusketa kritikoarekin batera konponbidea eskaini zuelako. Konponbide hori ez zela konbentzigarri izan beste auzi bat da.

Ekarrizketa, lan literarioa

Auzia ez da elkarritzetaren edertasunaren gorespina egitea lan literario gisa, batez ere gaztaroko elkarritzeta bizien: guztiak daude ados, eta «arte lan» bezala bereziki aztertzen seguraski aurrena izan zen Schleiermacherengandik ez da zalantzari gelditzen gaiaren inguruan⁸. Eta liburuki honetan jasota dauden elkarritzetak baieztapen honen frogua sendoak dira.

Oraingo auzia elkarritzetan egituraren bat bilatzea da, baldin badago. Horretarako helburu filosofiko eta, aldi berean, legitimatzailea eduki behar da kontuan. Eta nik uste dut badagoela. Une honetan elkarritzetaren formari bakarrik emango diot harreta, elkarritzetaren dramatismoaren beste aldeak (egiletasuna, norbera zalantzan jartzea, Sokratesen heriotza) aipatu ditudalako jada.

Elkarritzeta beti eguneroko egoera batean hasten da, bi lagunek elkarrekin topo egin edo lagun komun batek bi ezezagunak kontaktuan jartzen dituelarik. Oso maiz deskribapena ez da zuzena («Sokratesek Protagorasi bisita egiten dio...»), zeharkakoa baizik («X-k Y-ari Sokratesek Z-rekin topo egin zuela kontatzen dio»). Eszenografia deskribatu baino gehiago zeharka aipatzen da. Elkarritzetaren gaia askotarikoa da, hizketakidearen arabera: beti hizketakidearentzat esanguratsuen eta era-bilgarrientzat jotzen den gaiaz hitz egiten da (Karmides: gogo neurritsunaren inguruan osasunerako onuragarri bezala, mutilak buruko mina daukalako), ala hizketakidea aditua den gaiaz (Protagoras: bertutearen irakasgarritasuna). Sokratesek bere hizketakideari esaten dio hura aditua den gaia definitzeko (bertutea, ausardia, heziketa, gobernuia). Sokratesek definizioa okerra dela erakusten du, edo bertute horren erakusgarritzat jotzen diren eta definizioan sartuak ez dauden kasuak daudelako, edo definizioak egokiak ez diren kasuak jasotzen dituelako. Definizio hori gezurtutata gelditu ondoren, Sokratesek beste bat eskatzen du, eta

analisi prozedura bera erabiltzen da: definizioak proba gainditzen baldin badu, onartzen da, bestela errefusatzen da eta beste definizio bat bilatzen da. Elkarrizketa gehienak, gaztarokoak batez ere, irekirik amaitzen dira, hau da, hizketakideen eskaera intelektualak asebetetzen dituen definiziorik eman gabe. Definizioarena baino analisi mota konplexuagoak daude, baina hori da prototipikoa eta deigarriena.

Horretan ados daude ikertzaile guztiak. Baino eztabaidegai bat dago: proposamen desberdinen aurkezen eta errefusatze horretan ordena bat al dago edo halabeharrezkoa al da, edo auzi mota bakoitzaren arabera al da bakarrik, horrela, adibidez, ausardiaren inguruko ikerketak eta heziketaren ingurukoak arazo desberdinak edukiko lituzketela, bi kontzeptu desberdinak izanik? Ala elkarrizketetan idazketa prozesu komun bat al dago? Eta, baldin badago, zein da?

Nire ustez badago, eta honako hau da. Arazo baten berezko eztabaidea filosofikoa hasten den orduko, eztabaidea ia eteten den memento bat heltzen da, elkarrizketak ezin duelako gehiago eman. Memento horretan Sokrates itxuraz desbideratzen da eta printzipioz hizketagaia-rekin zerikusi zuzenik ez daukaten beste gai batzuez hitz egiten hasten da, eztabaidearen ordura arteko maila baino orokorragoak eta zabalagoak diren ideia filosofikoak. Baino maila berri horretan, modu bitxian, aurreko mailan egiten ziren baieztapenak ulertu, azaldu eta justifikatzeko argia aurkitzen da. Bestela esanda: eztabaidea filosofikoa maila filosofiko batzuetatik gero eta orokorragoak diren besteetara pasatzean datza, maila berri eta goragokoak beheragoko funtsak direlarik. Fundatzaileak diren heinean, Platonek aurrekoen «printzipiotzat» (archai) jotzen ditu; eta filosofoak bere aurkarien kritiken aurrean bere baiezta-penei eusteko gai izan behar duen heinean, filosofoak «bere buruari eta bere arrazoiketari laguntzen die» (boêthén tō lógo).

Adibide pare bat. Fedon 84 c – 88 b zatian Simiasek eta Kebesek arimaren hilezkortasunaren tesiaren inguruko zenbait objektio egiten dituzte. Orduan argudiaketa eten egiten da, eta Sokratesen heriotzaren aurreko azken uneko eztabaidea ospetsuan present egon zen eta narratzailea den Ekekatesen entzuleen interesak kontatzen zaizkigu, eta Sokratesen portaera kritiken aurrean. Eta esaten zaigu: Sokratesek, haserretu ordez, argudiatzen jarraitu zuen («diskurtsoari eta bere buruari lagundu zion»), baina ez ideia berberetan tematuz, sorketa eta hondaketaz hitz eginez baizik, heriotzarena baino gai askoz zabalagoa

dena, bertatik heriotzaren gaia intelektualki argitu daitekeelarik (95 e – 99 c). Arazo horren irtenbideak, bere aldetik, beste maila desberdin eta goragoko batera darama, ideien teoriara (99 d - ...). Azken maila hontatik arimaren hilezkortasuna auzi orokorragoaren barneko auzi partikular bat bezala aztertu daiteke.

Errepublikaren bigarren liburuan Adimanto eta Glaukonek Sokratesek Trasimakoren tesien aurka lehenengo liburuan egiten zuen justiziaren defentsari erasotzen diote. Lehenengo liburuaren amaieran justiziari buruzko egoera batean eta maila batean gaude, beraz. Bainan maila hori ezin da bere horretan defendatu: horregatik erasotzen diote Adimanto eta Glaukonek. Sokratesek filosofo gisa bere tesiari eta bere buruari defendatzeari ekiten dio. Horretarako itzulinguru izugarri bat egiten du: gizarte ideal baten eredu oso bat diseinatzen du, gainerako liburu osoa horretan emanet. Estatu onenaren bere ideia defendatzeko, berriro beste itzulinguru bat egin behar du eta mailaz aldatu, eta idealaren eta enpirikoaren artean bereizi. Eta berriro, itzulinguru baten bidez, berezko idealaren ordez Ongiaren ideia hartu behar du. Ongiaren edo, gutxienez, bere hurbilena denaren ezagupena dauagunean bakarrik baliozkotu ditzakegu justiziaren kontzeptua eta eztabaidan zehar agertu diren tarteko hausnarketa-maila guztiak.

Ikuspegi horretatik azter genezake elkarritzeta bakoitza, baina hobe da irakurleak egitea. Eskema laburbilduz, elkarritzeta platoniko batek ondorengo egitura daukala esan dezakegu:

- 1) Abiapuntua: eguneroko bizitzaren egoera; balio konkretu baten eguneroko kontzeptua.
- 2) Sokratesek kontzeptu hori gezurtatzea.
- 3) Hizketakideen arteko adostasun eza: kontzeptu sokratikoen kritika.
- 4) Sokratesek maila teorikoa igotzea hortik aurreko tesiak justifikatzeko («printzipioetara igotzea», «norberaren eta argudioaren defentsa»)⁹.

Elkarritzeta idatzien egitura hori dela onartuz gero, elkarrekin estu lotuta dauden bi arazo gelditzen dira zintzilik, hemen jasotzen diren elkarritzetako bakoitzari buruz gauza pare bat esan baino lehen: elkarritzeten eztabaidan azken printzipioetara heltzen al da? Zer jarrera hartzu zuen Platonek bere elkarritzeta idatzien aurrean? Lehenengoa

Platonen filosofia ulertzeko auzi sistematikoa da; bigarrenak idazketa platonikoa bere jarduera intelektualaren osotasunean kokatzen du.

Arrakasta izan duen elkarrizketen interpretazio bat lan irekiak bezala hartzea izan da: Platonek arazoak proposatuko lituzke, baina ez lituzke konponduko eta irakurleari utziko lioke arazo horiek konponentzko edo beraien aurrean jarrera bat hartzeko lana; probokazio intelektualak lirateke beraiek proposatzen dituzten arazoentzako erantzunak baino gehiago. Pentsamendu sistematiko bati uko egingo lioke ere esplizitoki¹⁰.

Interpretazio horrek bi objektio dauzka aurka. Aurrenik, erantzunak nabarmenak diren elkarrizketak badaudela, beren egitura sistematikoa dela, ez aporetikoa bakarrik, erantzunak esaten ez zaizkigun elkarrizketetan ere irakurlea zenbait tokitara bideratzeko edo, gutxienez, posizio zehatz batzuetatik apartatzeko presio handia dagoela: elkarritzeta horiek erantzuna esaten ez badizute ere, bide batera eramatzen zaitutze behintzat, nahiz eta zuk ez jakin bide horren azken konklusioa zein den. Errepublika, Timeo, Politikaria, Legeak elkarritzeta proposatzaileak dira, ez aporetikoak bakarrik; Sofista, Teeteto irakurlearen esku utzitako eta erantzunetara irekiak dauden galdera baino gehiago dira.

Baina interpretazio aporetikoaren aurkako beste argudio bat dago: Platonen beraren iritzia. Platonek ahozko irakaspena idatzizkoa baino hobea dela utzi zuen idatzita. (Fedro, 274 c – 279 c) eta bere doktrinen eduki garrantzitsuena ez zuela inoiz idatzi ezta idatziko ere esatera heldu zen (VII. gutuna, 340 b – 345 c). Horrekin ez da ulertu behar irakaspenei idatziak (elkarritzeta) garrantzirik ez daukanik, beste irakaskuntza-jarduera are hobea dagoela baizik; eta filosofoaren hitza aintzat hartu behar dela¹¹. Eta bere ikasle zuzenenek (bereziki Aristotelesek, baina ez honek bakarrik) egiten dituzten Platonen doktrinen azalpenek baieztagatzen dituzte Platonen hitz horiek, haren idatzietan aipatuak agertzen ez diren doktrinak kritikatu eta hari egozten dizkiotenek; funtsean bi printzipioen teoria bat, Platonek beronen bidez errealitatearen osotasuna azalduko zukeilarik¹². Platonek bere Akademiako ahozko irakaspenean azalduko zituzkeen idatzi gabeko doktrina horiek hain zuzen¹³.

Datu horiek erabiliz, Platonen interpretazio berri batek dio beti esan gabeko zerbaiten erreferentzia bat dagoen elkarritzeten irekitasun horrek doktrina akademiko horien erreferentzia egingo lukeela, eta

elkarrizketetan defendatutako tesien azken justifikazioa liratekeela. Errepublikarena da kasu deigarrien eta garrantzitsuena, bakarra izan gabe. Lehen ikusi ditugu Sokratesek bere justiziaren teoria defendatzeko egiten dituen pausoak Ongiaren teoria batera heldu arte. Bainaz auzia ez da hor amaitzen, hizketakideek, Sokratesi Ongiaz hitz egiten zenbaitetan entzun diotenez, zer den galdetzen diotenean, berak erantzuten baitu: «*hori gai konplexuegia da orain azaltzeko. Bainaz Ongiaren semeari buruz hitz egin dezakegu, eguzkiari buruz*» (Errepublika, 504 e – 505 a; 506 d – e). Eta irudi handiak azaltzen ditu: eguzkiarena, lerroaren, kobazuloarena (Errepublika, 507 a – 517 a). Batzuen ustez Sokratesen esaldi hori Ongiari buruzko ezagupen ezarentzako aitzakia da, baina ondoren datorren lerroaren konparazioa nahikoa konplikatua da ihesaldi hutsa dela pentsatzeko, batez ere Platonen filosofia osoa laburbiltzen duela kontuan hartuta. Eta, Platonek bere Akademiako ikastaroak Ongiari buruz izenburupean ematen zituela gogoratzen badugu, edukia printzipio bikoitza zelarik hain zuzen ere, aitzakia baino zerbait gehiago dela ikusiko dugu: Akademiara ikastera joateko gonbidapena da, bere doktrinaren eduki garrantzitsuena idatziz argitaratzeko bere buruari ezarritako debeku hori hautsi gabe¹⁴.

Horrek ez du esan nahi elkarrizketek baliorik ez daukatenik, guztiz kontrakoa baizik: Platon ezagutzeko idatzi gabeko doktrinekin osatu behar direla alegia. Eta bi irakaspen horien sintesitik, irakaspen idatziaren eta ahozkoaren sintesitik, Platon sistematiko bat sortzen da, ez probokatzaile intelektual huts bat, bere ikasleak kontrolatzen dituen irakasle bat, ez bakarrik kutsatzaile existentalista bat joko intelektualean. Platonek bere elkarrizketak ikasleak bere Akademiara erakartzeko idatziko zitzakleen, bere doktrina filosofikoak zabaltzeko baino gehiago propaganda baliabide gisa.

II Liburuki honen elkarrizketak

Amaitzeko, liburuki honetan jasota dauden elkarrizketetako bakoitzari buruzko ohar pare bat.

Eutifronek kultura herrikoian –eta ez herrikoian– ulertzen zaila den zerbait azaltzen du argitasun osoz: gizakiaren Jainkoekiko harremana ez da eskaerakoa –hori otoitz berekoia da: senda dadila nire

semea, dirua irabaz dezadala-, haien gailentasunari himno bat baizik. Benetako otoitzak jainkoak goresten dituena da, ez zerbait eskatzen diena.

Eutidemok eragin kaltegarria eduki du mendebaldeko kulturan sofistei buruzko gure iritzian: Platonek bi anaia hauek ustezko arrazoi-tzaileak bezala aurkezten ditu, egitan funtsik gabeko hitzen malabarista hutsak izanik. Zenbait interpretarik anaia hauek sofistikak direla pentsatu dutenez, sofistikak intelektual burugabeak direneko ondorioa ateradute, oraindik ere irauten duen iritzia. Bainan hori ez da Hipias, Protagoras edo Gorgiasekiko eztabaideatik ateratzen den irudia. Eta Platonek bere heldutasunean ezartzen dien kritika (Sofista) elkarrizketa kaltegarri horren zentzugabekeria multzoa baino askoz serioagoa da.

Gorgiasekin Platonek bere idazkeraren maisu lanetako bat ekoizten du. Hitzaren bi loturak nabarmen nola uzten dituen modua: boterearekiko lotura, Gorgias, Polo eta Kaliklesek ordezkatua, hau da, erretorika; eta egiarekiko lotura, filosofiaiak ordezkatua Sokratesen irudian; Kaliklesen deskribapena politikari makiabeliko gisa erabateko sendotasuneko da: pertsonaia honetan Platonek jada maisua den zerbaitetan bere burua gainditu du: doktrina eta bizitzaren arteko elkarrekiko eragina erakustean; Kalikles hau Errepublika-ren lehenengo liburu-ruko Trasimakoren pertsonaia paraleloa da. Platonen elkarrizketetan gutxitan ikusten da horretan bezain argi ideiak ez direla eragingabeak bizitzan: imintziorik gabeko patetismoa elkarrizketa oso horretan zehar dabil tragedia haize bat bezala.

Mendebaldeko kulturak, kristautasunak eman duen antzinateko munduaren irudiak baldintzatuta, Fedon Platonen eta antzinateko filosofiaren elkarrizketa eraginkorrenetako bat bihurtu du. Platonek bertan arimaren hilezkortasuna defendatzen baitu. Bizitza eta doktrinaren arteko elkarrekiko eraginaren inguruko beste elkarrizketa bat da. Bainan bere gorputzaren eta arimaren bereizketa zorrotzarekin mendebaldeko pentsamendua eskizofreniko bihurtu du. Bere edertasun literarioak bere eragin intelektual suntsigarriak biderkatu ditu.

Menonek Platon osoaren pauso ospetsuenetako bat dauka: Sokratesek erakusten du esklaboak, berak jakin gabe, matematika badakiela, hau da, bere oroitzapen edo innatismoaren tesiaren kasu praktiko bat erakusten du. Platonentzat beharrezkoa zen tesi hori, ez delako gnoseologiako auzi hutsa, innatismoaren geroko bertsioetan

horretara murriztua izan den bezala, batez ere modernoetan (Descartes, Chomsky), baizik eta arrazoi politikoak zeuzkalako: politika platonikoa naturan errotzen da azken finean eta, Platonen ustez, innantismoak –anamnesiak– gauza guztien arteko lotura nabarmen uzten du, gizakiarenaturarekin.

Ez da lortu Kratiloren gutxieneko interpretazio adostua: batzuen ustez, Platonek barre egingo ziekeen etimologien inguruko ondoriorik gabeko joko intelektual hutsa da; beste batzuen ustez, Platonek posizio bat hartuko zukeen zenbait posizio intelektualen aurrean. Bainaz eztabaidaezina zera da, hitzek eta hizkuntzak naturaz ala konbentzioz jokatzen duteneko bere planteamenduak historia egin duela, gaurko egunera arte.

Fedron Platon eta platonismoaren ildo asko gurutzatzen dira. Bere erretorikarekiko interesa, baina egiara zuzenduta eta entzulearen izaerara egokituta, beronetan arima mota bat ala bestea nagusi den araberako; maitasuna, elkarrizketa horretan eta Sinposioa-n Platon mendebaldeko kulturako bere tematizatzale handienetako bat izan zelarik; arimen transmigrazioa, bere lanetako toki askotan defendatu zuena, nahiz eta Greziako aurrena ez izan; eta idazketaren estatutua, bere elkarritzeten gaurko interpretariak zatitzen dituena. Beren edertasunaz itsutzen duten beste elkarrizketa horietako bat.

Elkarrizketa horien aurrean irakurleen erantzuna edozein izanda ere, jarrera bat inposatzen da: lumaren maisu honetaz gozatzea pentsamenduaren maisua delako. Ala alderantziz.

José Ramón Arana,
Euskal Herriko Unibertsitatea.

Oharrak

¹ Elkarrizketen kronologiaren inguruiko guztirako, Ik. José Ramón Arana, 2001, 29 – 36 or.

² Ik. José Ramón Arana, 1998; Errepublika, III, 377 b - ...; X, 596 d - ...; poetei egindako kritikaren pausoak, askoz ezagunagoak; halaber Legeak, II, 653 d - ...

³ Sofistaren lehenengo definizioa da: «gazte aberats eta ospetsuen ehiztaria limurtzearen bidez, batez ere diru etekina lortzeko».

⁴ Ik. D. Rössler, Welskopf-en, 1981, 205-222 or.

⁵ Ik. K. Gaiser, 1959, 71 or. ... : elkarritzeta sofistikoaren azterketa bikaina izaten jarraitzen du oraindik ere.

⁶ Ik. José Ramón Arana, 2001, 13 – 19 or., hiri-estatuaren krisi honen interpretazioaren inguruan; eta 19 – 24 or., Platonen posizioaren inguruan Sokratesen heriotzaren aurrean.

⁷ Ik. M. Heidegger, 1977, 2. paragrafoa.

⁸ Ik. F. Schleiermacher, 1969.

